

©
Sabino Aranak
150 urte
EAJ

«Kulturan jardungo luke Aranak egun; ez EBBn»

Ibaxaso Atutxa • EAJren Bizkai Buru Batzarreko presidentea

Euskal estatua aldarrikatu izana aipatu du Aranaren ekarpen handien artean. EAJk bide hori ez duela sekula alboratu dio, baina beste urrats bat egiteko unea izan litekeela. Estatus berrian kokatzen du pauso hori.

Aitziber Laskibar Lizarrabar Bilbo

Gustura aritu da bere alderdiaren sortzaileari buruz. Hitz onak besterik ez du, eta gaur arte iraun duen legatuaren balioa goratu du. Halere, ez du Sabino Arana egungo politikan sartuta irudikatzen; euskararen eta kulturaren alorrean arituko litzatekeela uste du.

Zer geratzen da egun Aranak egindako ekarpenetatik?

Gauko gizartean oso errotuta dagoen nazio kontzientzia berari zor dio. Baita egun oso zabaldua dauden ikur asko ere: ikurrina, ereserkia, Euskadi izena, euskal izendegia, EAJ, aberri eguna... Gaur egun, horiek herriaren ezaugarriak dira. Ikurrina ez da alderdiarena. Ez da, dagoeneko, Sabinorena berarena ere. Herriarena da. Ni ez naiz oso sinbolo zalea, baina uste dut gurearen moduko herri batean oraindik badutela garrantzia, batzako ikurrak direlako. Oraindik, identitate nazionala kanpotik onartuta ez dukan gizarte batek ikurrina bezalako ikur bat eta Euskadi bezalako hitzak barneratuta izateak batasun bat sortzen du jendearengan, eta uste dut garrantzitsua dela.

Bada ikurrina eta Euskadi izendapena atzerapausotzat jotzen duenik. Aurrez Euskal Herria Nafarroako ikurrak ordezkatzeko zuela diote, eta, Euskadi asmatu aurretik, Euskal Herria izendapena bazela. Zer diozu?

Uste dut gaitututa dagoela eztabaida hori. Dagoeneko, edozein nafarrek eta Iparraldeko edozeinek beretzat dauka ikurrina, eta munduan gure nazioaren ikur moduan onartzen da. Izenaren inguruan, egia da Euskal Herria existitzen zela, baina ez zen kontzeptu politiko bat, soziologikoa baizik. Euskadi izena kontzeptu politiko gisara sortu zuen, kontzientzia nazionala sortzeko, zerbaiten inguruan batzeko. Euskal Herria abertzale ez zirenek ere erabiltzen zuten, bakoitzak bere kontzeptioarekin. Ikur horiek

kontzientzia zabaltzen lagundu zuten, oso garai zailetan: gerra eta diktadura garaietan zein garrantzia izan zuten ikusi besterik ez dago. Lotura izan da askorentzat. **Bidean galduta edo itzali den arloren bat berreskuratu behar litzatekeela uste duzu?**

Guk *Euskotarren aberria Euskadi da* ideari eusten diogu, eta horregatik uste dugu gure etorkizuna erabakitze eskubidea behar dugula. Sabinoren ideia nagusia oso gaurkoa dela uste dut, egun herri honek dituen ardura nagusietako bat delako.

Euskal estatu baten beharra plazaratu zuen duela ehun urte baino gehiago. Zerk egin du huts?

Ez da hutsa. Gertatzen dena da historia historia dela. 120 urte pasatu dira, baina Euskadi 40 urte luzeko diktadura bat izan du, gerra oso luze baten ostean. Eta ez hori bakarrik; uste dut beste gauza batek ere atzeratu duela gure aldarrikapena: ETaren presentziak. Horrek ere luzatu egin du bide bat. Uste dut aurrerapauso bat eman ahal izango genukeela ez bagenitu izan diktaduraren 40 urte eta ETaren beste 40.

Estatua lortzeko bidea berreskuratzeko unea da, beraz?

Guk ez dugu sekula bide hori utzi; guretzat goiburua da. Gainera, uste dut azken urteetako mugimendu politikoa eta soziala bide horretan doazela. Horregatik diot oso gaurkoa dela Sabinoren ekarpen hori. Gizartean oso zabaldua ikusten dut. Gustatuko litzaidakeena da abertzale ez direnengana ere zabaltzea. Izan ere, euskal nortasun baten alde egitea da; ez da inoren aurka egitea. Hori, adibidez, Katalunian errotzen ari da, eta guk ere egin dezakegu hemen. **Hitzek aldarrikatzen den hori gauzatu ahal izateko, estrategia aldaketa bat edo beste urrats bat egin behar litzateke?**

Possible izan zenean hasi ziren pauso batzuk ematen. Diktaduraren ostean, lehen atea zabaldu zenean, estatutu bat lortu ge-

nuen. Hori oso urrun dago gure aldarrikapen nagusitik, baina oso pauso garrantzitsua da. Orain, beste fase batean gaude. Egoera politikoa desberdina da; diktadura eta ETaren indarkeria utzi ziren, eta uste dut horrek ere badaukala bere garrantzia elkarbitzarako egiten den ahaleginean. Beharbada, orain da unea pausok emateko. Eta, alde horretatik, uste dut legebiltzarrean dagoen autogobernuaren inguruko lantaldea oso bide onean doala. Ez du ematen gauza arina izango denik, baina beste pauso garrantzitsu bat izan daiteke, estatus politiko berri baten bidean, eta estatus politiko berri batek esan nahi du, era berean, *Euskotarren aberria Euskadi da* aldarria berriro gure goiburuan jartzen dugula.

Nola irudikatzen duzu Sabino Arana egun biziko balitz? Zertan arituko litzatekeela uste duzu?

Egia esan, gehiago imajinatzen dut kultura inguruan mugitzen gaur egungo politikan baino. Egia da berak politikarako grina handia zuela, ardura handia zuela, baina uste dut bere benetako pa-



MARGOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

sioa kultura zela, euskara bereziki, eta kultura orokorrean. Gaur egun, gehiago ikusiko nuke alor horretan lanean, EBBko presidentea baino, esate baterako. Kulturan jardungo lukeela uste dut; ez EBBn.

EUSKO JAURLARITZA		GOBIERNO VASCO	
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAHIA		DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA	
EGA			
2015eko 1. deialdia			
ATARIKO PROBA: noiz-nongoak			
NON	EGUNA	ORDUA	NOIZ
ARABA: EHuko campus-a. Las Nieves Gelategia. Nieves Cano 33 - GASTEIZ	Otsailaren 21ean	8:45	A letratik - L letrara
		10:35	M letratik - Z letrara
BIZKAIA: EHuko campus-a. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (SARRIKO). Agirre lehendakaria 83 - BILBO	Otsailaren 21ean	8:45	ABADetik - INCHAURRAGA Ara
		10:35	INCHAURRONDOTIK - ZURUTUZA Ara
GIPUZKOA: EHuko campus-a. Ignasio M ^o Barriola eraikina. Eihuyar plaza 1. Ibaeta auzoa - DONOSTIA	Otsailaren 21ean	8:45	ABADetik - ILLARRAMENDI Ara
		10:35	ILLARREGHIK - ZURUTUZA Ara

OHARRA: Azterketariaren ardura da 2 zenbakiko arkatza, borragoma, zorrozka eta nortasun agiria eramatea (edo, NANIK ez balu, pasaporte, gidatzeko balimena edo egotzakoak, besterik ez). Fotokopiek ez dute balio.

EGA: Informazio gehiago www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/euskara web-gunean, eskabideen kontsultan.

Eibarko Udala

IBAGARRIA

LIBURUTEGIRAKO BI KULTURA LA-GUNTZAILE LANPOSTU BETETZEKO DEIALDIA.

Liburutegirako bi kultura-laguntzaile lan-postu lehiaketaz-opsitazio askez betetzeko deialdia egiten du Udal honek.

Baldintzak:

- Deialdiaren oinarrietan ezarritakoak (2015/01/16an Tokiko Gobernu Batzarrek onartutakoak). Herriaren Zerbizurako Bu-legean (PEGORA) eskura daitezke, eta web orrian (www.eibar.eus)

Eskaerak egiteko toki-egunak:

Tokia: PEGORA - Untzaga Plaza, 1.

Eguna: martxoaren 2a arte (egun hori barne).

Ordutegia:

- Asteleheneetik asteazkenera: 08:30-14:30 eta 15:30-19:00
- Ostegunetik ostiralera: 08:30-14:30

Eibar, 2015eko otsailaren 9a

ALKATEAK

Miguel de los Toyos Nazábal

Oharra: liburutegiak kudeatzeko Absysnet programaren eskuliburua Eibarko Juan San Martín Udal Liburutegian dago esku-ragarri bertan kontsultatzeko